



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Bilboko Udal Etxebizitzak TEA

##### **Ebazpena, txanda irekiko sistemaren bidez Arkitekto Teknikoaren lanpostu bat (1) betetzeko hautapen-prozesuari buruzkoa (2021eko EPE-koa).**

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluak, erakunde horren estatutuetako 10. artikulua(m) puntuan ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez, honako eskumen hau esleitzen zaion Zuzendaritza Kontseiluari «Langileak hautatzeko proben sistemak eta oinarriak onestea, baita plantilla, lanpostuen zerrenda, eginkizunen esku-liburua eta soldaten, ordainsarien, dieten eta kalte-ordainen, laguntzen eta erakundeko langileei aplika dakizkiekeen gainerako kontzeptuen finkapena ere; horrez gain, urteko hitzarmen kolektiboak onestea», 2024ko otsailaren 22an egindako bilkuran honako hau erabaki du

*Lehenengoa:* Lander Irazoqui Cuñado jauna proposatzea arkitekto teknikoaren lanpostua betetzeko (2. lanbide-sailkapeneko taldekoa —A taldea, A-2 azpitaldea—, 23. maila, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizuna, honako zuzkidura-zenbaki hau duena: 2605-01).

*Bigarrena:* Irazoqui jaunari ebazpen hau jakinaraztea, deialdiaren xede den arkitekto teknikoaren lanpostuan berehala hasteko.

*Hirugarrena:* TEAko aldi baterako zerbitzuak emateko arkitekto teknikoaren lan-poltsa eratzea. Lan-poltsa hori deialdi honetan kontratatzea proposatutako pertsona lanean hasi eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

*Laugarrena:* Ebazpen honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, erakundearen iragarki-oholean eta web-orrian (OPEm aplikazioa) argitaratzea.

Bilbon, 2024ko otsailaren 23an. —Zuzendari Nagusia, Iñigo Villarroya Lozón